

# Noqua!!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko azaroaren 9a VI.urtea

Usurbil, 123. zenbakia



Udazkeneko fruiturik  
preziosuenak

# KULTUR HILABETEA

## USURBIL 2001

**AZAROAK 22** ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUA  
*Udarregi Ikastolan* **19:30etan**

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
"Mendi trabesia asto batekin"  
Aitor Landaluze eta Jexus Agirresarobe  
*Udarregi Zaharrea* **19:30etan**

**AZAROAK 24** KULKI HERRI KIROL ETA BASERRI JOLASAK  
*Pilotalekuan* **16:00etan**

**AZAROAK 25** HERRIKO TXISTULARIEN KONTZERTUA  
*Pilotalekuan* **12:00etan**

**AZAROAK 30** ANTZERKIA - "Oihanaren legea"  
*Hika Antzerki Taldea*  
*Oiaro Kiroldegian* **22:30etan**

**ABENDUAK 4** HITZALDIA - "1610: muga eta boterea,  
sorginkerien muga"  
*Etumeta Euskaltegi berria* **20:00etan**

**ABENDUAK 5** KONTZERTUA - GARAI (herriko taldea)  
*Udarregi zaharrea* **23:00etan**

**ABENDUAK 9** BOLA TXAPELKETA  
*Askatasuna plazan* **10:30etan**  
eta HERRIKO TRIKITILARIAK

**ABENDUAK 14** "Mende baten aldarriak  
hogeigarrenean jarriak" saioa  
Jon Maia eta Xabier Amuriza  
*Udarregi Zaharrea* **22:30etan**

**ABENDUAK 15** MENDI IRTEERA, BAZKARIA  
DIAPOSITIBA EMANALDIA:  
"Andatza K.K.E. 2001"  
*Udarregi Zaharrea* **20:00etan**

**ABENDUAK 16** SANTO TOMAS AZOKA

**ABENDUAK 19** HERRIKO ABESBATZEN  
KONTZERTUA  
*Salbatore elizan* **20:00etan**

**ARGAZKI ERAKUSKETA**  
UDAL FOTOTEKA  
Abenduaren 19tik 30era  
*Udarregi Zaharrea*

Diseinua: Zalca Arnaiz

EUSKAL PRESOK



EUSKAL HERRIRA!



Usurbilgo Udala

Noqua!!  
KULTUR ELKARTEA

# Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Iñigo**, amatxo **Arantxa** eta aitaxo **Juan Karlos!** Aurreneko semea ekarri duzue, ea noiz hurrengoa. Muxu handi bat etxeko-koen partez!



Zorionak **Andoni!** Azaroaren 16an 3 urte bete-tzen ditu gure etxeko txikiak. Muxu handi bat etxeko guztien partez, eta batez ere amaxoren partez.



Zorionak biol! Zurinek 6 urte bete zituen urriaren 28an, Itxasok, berriz, bere lehen urtea beteko du azaroaren 10ean. Ea non dauden gozokiak! Muxu pare bat bakoi-tzarentzat familiaren partez eta bereziki Iruneren partez.



Gure etxeko poxpolinak hiru urte bete zituen azaroaren 5ean. Maddi, zorionak guztiaren partez eta bereziki zure lehengusu Joanes, Leire, Beñat, Ane, Peru eta Xabat-en partez. Orain bezain polita eta bizkorra izaten jarraitu dezazula!



47 urte elkarrekin halajaina! "Ene...hau da hau hermosa", zuk esango zenukeen bezalaxe ama. Azaroaren 11n biok elkarrekin, aita **Joxe Mari** eta ama **Maria Jesus**, beteko duzuen egun eder horrengatik zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin dire-lako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: azaroak 23

Ekartzeko azken eguna: azaroak 16

## Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

\*Oriarino \*\*Aiararino  
■ Asteburutan

\*Oriotik \*\*Aiatik

■ Asteburutan

## Azaroa

Astel.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
			1	2	3
			4	5	6
			7	8	9
			10	11	12
			13	14	15
			16	17	18
			19	20	21
			22	23	24
			25	26	27
			28	29	30

● Hurrengo alea



Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikamikan foki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izangoiti batekin sinatu daitezke, baina Noauan argitaratu emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

## Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiaro kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeña 37 20 01
- Taxi gelfokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erzantzia 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzaria 37 20 77
- Argindarra (berduero) 47 09 76

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane  
Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agur-  
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,  
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel  
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz  
Goenaga, Urko Manterola, Eneko  
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-  
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-  
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak  
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-  
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus  
Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari  
Angeles Arruti.

**Bazkidetza**

Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster  
eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika**

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa**

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du  
bere gain hartzen aldizkarian adie-  
razitako esanen eta iritzien erantzun-  
kizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko  
jendaurreko  
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00**

**astegunetan**

## Ez al da nahikoa asteleheneetik larunbatera irekita edukitzea?



**H**ori da gure galdera.  
Edozeinek bere  
erosketak egiteko  
astean zehar nahikoa egun  
badaudela uste dugu.  
Eusko Jaurlaritzak kontsumi-  
tzaileen artean egindako  
inkestaren arabera %90en-  
tzat ez da batere kaltega-  
ria saltokiak jaiegunetan  
ixtea. Zer dela eta jai egu-  
netan saltokiak irekitzeko  
Eusko Jaurlaritzaren gogo  
bizi hori? Dendari txikien  
mesederako ez da izango  
behintzat.

Merkatal zentru haundiek  
aspalditik eskatzen dute  
ordutegien liberalizazioa  
eta Euskal Gobernuak  
horren alde jotzen ari  
dela esan dezakegu. Neurri  
honekin, berriz ere, komer-  
tzio txikia kaltetuko dute.  
Berriz ere diogu, izan ere  
urte gutxitan eta hoge kilo-

metroko bueltan bost mer-  
katal zentru ireki baitituzte.

Honek guztiarekin denda  
askok ateak itxi behar izan  
dituzte. Gure herrian azke-  
nekoa ORKOI oinetako  
denda izan da, eta honen  
aurretik Santueneako beste  
bi denda ere itxi zirenaldi  
borean.

Guzti honen ondorioz pix-  
kanaka-pixkanaka herria  
ere hiltzen ari da gure  
ustez, gero eta giro gutxia-  
go dagoela esan dezake-  
gu. Urbil merkatal zentrua  
ireki zenetik salmentak  
nabarmen gutxitu egin di-  
rela ukatu ezina da, baina,  
hala ere, herriko dendariak  
orain arte bezala bezeroak  
profesionaltasunez hartzen  
saiauko garela ziur egon  
zaitezte.


### Herriko dendari batzuk



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Euskal Herrian bizitzea ukatu nahian

**P**auko prefetak hamazazpi euskal errefuxiatuei Euskal Herrian aske bizitzeko eskubidea ukatu egin die. Hori-en tartean Xabier Miguel Ezkerra herritarra dugu. Xabierrek 26 urte daramatza hemendik kanpo, azken seiak Ipar Euskal Herrian bizitzen, espetxea eta konfinamendua ezagutu ondoren. Kasu beretsuan dauden beste kideekin batera beren egoera legez-tatzeko eskaera egin zioten administrazio frantsesari. Izan ere, legezko dokumenturik ezean, ez dute lan egiteko esku-biderik, ez gizarte segurantza edo medikuen asistentzia izateko eskubiderik. Espultsioaren arriskua, berriz, iraunkorra da.

Joan den ekainean Komisio berezi baten aurrean pasa ondoren, duela aste batzuk jaso dute Prefekturaren erantzuna: hilabeteko epean Estatu frantse-sa utzi behar dute, nonbait arriskutsuak omen dira. Jakin bada-kite, espultsatuak eta beste askok ezagutu duten torturaren

amets gaiztoa pairatzeko arris-kua dutela. Baina beraiek euskal herritar diren heinean, Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatu eta bertan iraungo dutela adierazi dute.

Egoera honen aurrean mobili-zatzen hasiak gara. Enkartzelada bat egin genuen Kalezarren, be-re auzoan, urriaren 26an. Pren-tsaurrea egin zen Baionan era-bakia salatze eta bertan zen-bait herritar izan ziren, tartean alkatea. Sinadura bilketa ere egin da eta 482 herritarren eta 21 taldeen izenean aurkeztuta-ko mozioa aztertu da azken udal plenoan. Mozioan Xabie-rrek Euskal Herrian bizitzeko du-en eskubidea aldarrikatzeaz gain, estatu frantsesari espultsio-aren bidea baztertu dezala es-katu zen, ondotxo dakigun be-zala torturaren arriskua oso erre-ala delako. Mozioa aurrera atera da Batasuneko eta EAko zinego-tzien onespina jaso ondoren azken honek mobilizazio deiekin bat egin ez duen arren. EAJ, be-

rriz, abstenitu egin da eta PSOE-koa ez zen plenora azaldu.

Datozen egunetarako beste ekimen batzuk prestatzen ari gara: Giza Eskubideen Defentsa-rako udal batzordea bilduko da Xabierren kasua aztertze, eta bide batez, Enkarni Martinez-en tortura salaketaren nondik nora-koak ere bai; datorren azaroa-ren 24rako Baionan manifesta-zioa egingo da...

Azken urteetan, eta batez ere azken garaiotan, gobernu espa-ñiarrak zein frantziarrak darama-ten jarrera ikusirik, ezin espero dezakegu zentzuzko eta bidezko erabakirik hartuko dutenik. Joan den astean AAB-ren eta Senide-ak-en aurka egindako "garzo-nada" berria da horren lekuko. Horregatik gure eskura dagoena egingo dugu oraingoan ere bidegabekeria berri hau ekidite-ko. Ahalegin horretan elkartasu-na eta laguntza eskatzen dizue-gu berriz ere.

**Usurbilgo "Senideak"**

## Euskara-Kultura teknikari lanpostuaren aurrean hainbat argibide

**H**ainbat idatzi, kexa eta adie-razpen egin da gai honeki-ko, eta horregatik, gai honen nondik norakoak egoki uler-tzeko, kontrasterako idatzi hau aur-keztera behartuak sentitzen gara; hausnarketa egokiena egiteko infor-mazioa baino hoberik ez baitago.

Izandako eztabaiden arrazoieta-ko bat lanpostua eta langilea nahas-tea izan da.

Aurretik euskara-kultura-gaztedia lanetarako idazkari lanak egiten zituen administrari laguntzaile-itul-tzaile lanpostua bazegoen Usurbilgo udalean. Arlo horietan gabeziak zeudela jakitun, teknikari plaza bat betetzeko oposaketa ipini genuen martxan. Batzuek ezinezkoa zena eskatzen zuten, administrari lagun-tzailea teknikari gisa izendatzea, barne oposaketa bidez. Ezinezkoa, lanpostuen sailkapenean bi mailako aldaketa suposatzen zuelako, eta

egungo legediak hori ahalbidetzen ez duelako.

"Entxufe"-a eskatzen zuten ba-tzuk. Gu, berriz, lanpostuetaz jabe-tzeko herritar guztien aukera berdin-tasunaren aldekoak gara; hori izan da gure betiko jarrera, eta horretan mantenduko gara.

EAJ-PNV etekina atera nahirik ibili da, besteen kontura bizi den bizkar-koi gisa. Ahalik eta lan gutxien egin-da, ahalik eta etekin haundiena atera nahian. Idatzi asko kaleratu dituzte, Lurdes Zubeldia teknikari gisa izendatzeko eskaera publikoak egin eta euskara arloan noraeza eta borondate eskasa dugula adie-raziz... Batzordeetan, berriz, inongo lan proposamen, euskara eta kultu-ra irizpiderik ez dute egin. Beraien helburu bakarra errendimendu elek-toralia izan da, herriaren aurrean oposizio txukuna egiten dutela itxu-ra emanaz.

Oinarriak prestatzeko garaian Konstituzio espainiarra nahita nahiez lehiaketa-oposaketako gai zerren-dan sartzera behartuak izan gara, PNV eta Lurdes Zubeldiaren jokaera zein izango zen bagenekielako, hau da, lehiaketaren prozesua etetea edozein forma akats erabilia. PNV-koek, herriaren alde lanean ibili beharrean, lehiaketa honetan forma akatsen bila erabili dituzte beren energia apurrak, euskararen eta kulturaren kalterako.

Oraindik ez ditugu estatuekiko kateak apurtu, baina hori da gure asmoa. Horretarako desobedientzia kanpainak diseinatu eta bultzatuko ditugu; Eudima, Udalbiltza, EHNA...

Bukatzeko, pertsona batzuk "deso-bedientzia" beren intereserako era-biltzen dutela adierazi nahi dugu. Guk berriz, Euskal Herriaren onerako.

**Batasunako Udal ordezkariak.**

# SANTUENEA

Isaak Muñoz



## Auzotar baten ahotik

**A**zkenaldi honetan ez daki-gu zein urtarotan gauden. Berez udazkenean gaude bete-betean, baina eguraldiaren gora-behera hauekin dena nahastuta dagoela dirudi. Gainera, hurrengo egunean galtza motzekin edo zamarra handiarekin atera behar dugun jakin gabe oheratzen gara egunero.

Eguraldia gora eta eguraldia behera, aspaldi honetan ohi baino gehiago aipatzen da gai hau bazter guztietan. Oraingoan beste gai bati eutsi behar diot, ordea. Duela gutxi, bizilagun batek zubitik auzorantz sartzean zerbait gaizki ez ote nuen

ikusten galdetu zidan. Nik ezetz, halakoekin ez naizela asko konturatzen eta dena ondo zegoela erantzun nion. Orduan ezkerredera dagoen parkeari begiratzeko esan zidan, baita parkea inguratzen duen barandari ere. Eskuleku hau puskatuta



dagoela ikusi nuen, baina ia betidanik halaxe egon dela ere pentsatu nuen. Denbora gutxi iraun baitzuen txukun barandak, berehala puskatu zuten eta.

Hala egoteko, onena eskuleku mota hori kentzea izango zela ondorioztatu genuen, edo, bestela, beste baranda mota bat jartzea, puskatzen hain erraza ez dena. Bietako bat, edo kendu edo konpondu baina puskatuta egoteak ezer gutxi balio du.

Auzotar honek arrazoi osoz hitz egin zidan eta gainontzeko auzotarrak animatzen ditut, halakoetatik konturatuz gero, guregana etorri eta esateko.

# URDAIAGA

Alazne Begiristain



## Manten dezagun garbi gure ingurua

**U**rte osoan hain arrunta ez den irudia ikusi ohi dugu Santu Guztien egunaren inguruan. Kotxeak gora, kotxeak behera, guztiak eskuak lorez eta landarez beteta... mugimendua nagusi normalean hain lasaia den gure auzo honetan...

Baina gaurkoan nahiago dut honetaz ez hitz egitea, haserre samar ere banago beste gai batzuetan jendearen axolagabekeria ikusita eta horixe aitatu nahi nuke. Bai, ezkontza ugari izaten dira gure auzoko ermitan. Behin baino gehiagotan bidean gora kartel modukoak ere ikusi izan ditut, "oraindik garaiz zaudete buelta emate-

ko", "azken kilometroa ezkongabe" eta antzeko leloekin.

Hauek ikusi eta barre egin izan dut, ez dut ukatuko. Baina, hurrengo egunean, kartel horiek hor zehar botata ikustean barre egiteko batere gogorik ez dut izan. Azkenean, eta euri-zaparrada baten ondorioz edo, "desagertu" dira kartel horiek bidetik.

Baina, benetan nire haserre piztu duena zera izanda: lehengo batean, ermita ondotik pasa eta coca-cola lata mordoak

ikusi nuen. Ezkongaien kotxeari lotuta eramateko izango ziren, noski. Baina hortxe zeuden, bide bazterrean utzita. Inork jasotzeko astirik ez zuen izan nonbait.

Manten dezagun garbi gure ingurua!



# KALEZAR

Ainara Uribe



## Kalezarren zaharrak berri

**K**aixo berriz ere guztioi. Ale batzuk pasatu dira tartetan eta berriz ere zerbait kontatzeko garaia iritsi zait.

Baina, egia esan, goialde honetan zaharrak berri. Lehengo kontuak oraingo kontuak dira gurean. Hala ere, lehengo auzotarrak hortxe egoteaz gain, bizilagun berri ugari du Kalezarrek, jende desberdina ikusten da azkenaldian inguru hauetan. Beraz, zaharrak eta berriak.

Beno, eta zeresanik ez etxeei buruz, aspaldikoak bota eta dotoreagoak eraiki dituzte. A zer nolako

itxura daukan Belmontek! Hau ere zaharrak berri. Noski, kalezartar gaztetxoek ere nabarmendu dute aldaketarik, betiko autobus geltokiari aterpe dotorea jarri diote, beste bat dirudi. Hau ere zaharra



berri. Ugarte industrialdean ere izan da berrikuntzarik. Lehen Maiona bakarra zen, baina orain gremio asko dago bertan. Oraingo honetan ere zaharrak berri.

Auzoko helduek umorez esango dute beraiek ez dituela inork berritzen. Hori norberaren esku dago!

Hala ere, eta martxa honetan, auzoari berari izena aldatu beharrean izango gara eta kaskokoei berea lapurtu beharko diegu. Ez. Berrikuntzekin eta hobekuntzekin baina gurea beti Kalezar.

# ATXEGALDE

Mari Karmen Mitxelena



## Auzoari errepaso txikia

**U**dazkena aurrera doa eta piper denboraldiak bere azkena harrapatuko du laster.

Izan ere, piperrak Aginagakok izan arren, gure auzoan prestatzen dituzte, Ageri-Alde ikastetxea zenaren inguruan. Auzotar batzuk kexatu ere egin dira, inguru hori ez omen dute oso txukun uzten piperrarekin lanean aritzen direnek. Beraz, dagokionak har deza-la niganaino iritsitako kexa.

Goialdetik behealdera joan behar dut orain. Normalean denboraldi honetan biztanle gehiago izaten dira Usurbilen, baina, nire ustez, gehienak gure auzoan izaten dira.

Izan ere, behealdeko aparkalekuan, Mahaspildegi inguruan, etxe mugikor ugari egoten baita, famili nomada ugari aukeratzen baitu aparkaleku hau etxebizitza modura.

Hala ere, ez gaude kexatzeko moduan. Nahikoa lasai ibili dira eta, beste askotan ez



bezala, oraingoan bazterrak nahiko txukun utzi dituzte.

Eta bukatzeko aparkalekuen kontuari eutsi behar diot berriz ere. Dagoeneko ohitura bihurtu da gure auzoan kotxea nonahi uztea, espaloi gainean eta, posible izanez gero, baita azpian ere. Arazo larria bihurtu da aparkelakuarena Atxegalden. Hala ere, eta kotxea espaloi gainean uztekoan, kontuan izan goizean goiz zaborraren kamioia pasatzen dela eta ez utzi, behintzat, honi enbazaru egiteko moduan.

# TXOKOALDE

Eukene Camino



## Irabiko bideko aberastasuna

**D**onostiako naturista batek esaten didanez, Irabiko bidetik pasatzen den bakoitzean bertako landaretzaren aberastasunak benetan liluratuta uzten omen du eta, batez ere, zenbat azeri buztana (gaztele-raz cola de caballo) edo equisetum menor (latinez equisetum arrense) dauden ikusteak txunditzen omen du.

Hozpelak, erreumadun minak, azaleko gaitzak, odolaren zirkulazio arazoak, bixikako eta giltzurruneko afekzioak eta urmina sendatzeko eta zauriak orbantzeko ematen zaio erabilerera gehien diuretikoak den sendabelar honi. Hau ekaina eta abuztua bitartean bildu behar da, landare berdeak eta fruitu gabekoak bakarrik. Itzalean

utzi behar da lehortzen, kolore berdea mantendu behar baitu. Batez ere lur hareatsu eta buztintsuetan, bide ertzetan eta ibai bazterretan aurkitu dezakegu azeri buztana. Ganaduak hau jaten duenean nabarmena izaten omen da, pixa gehiago egiten baitu.



Bestalde, "Desarrollismo suntsitzaillearen eta kapitalismo basatiaren kontra, eta AHTaren aurkako ekintzen alde", azaroaren 10ean Irisasi etxeak eta Akerra gaztetxeak antolatutako kontzertua izango da Aginagako eliza zaharrean gaueko hamarretatik aurrera. Sarrera 600 pezeta kostatuko da eta taldeak, berriz, Kobory (Orereta-Beraun), DKV (Gacela-Burgos), Chicharrica (Zaragoza), Repulsa Sozial (Tudela de Duero) eta Korrosiva (La Nave Xegovia). Musika faltan ez gaude, beraz, baina ea San Estebango elizan jarri behar dituzten erloju eta kanpai berriaren hotsak noiz hasten diren auzotar guztion belarriak gozatzen!

# KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



## Biba Xiberua!!!

**U**rdiñarbe-Usurbil ibilbideak 2 ordutik gorako iraupena baldin badu ere, harremanaren bideak motzagoa du. Zergatik diodan hau?

Hiruzpalau urte badirelako Zuberoako herritarrekin harremanetan hasi ginela. Eperra lkastola berria eraiki behar zela eta, hainbat herri laguntza eskaini zuten, eta Usurbil tartean zen. Orduan auzolana ezinbestekoa izan zen, bertako erakundeek ez baitzuten laguntzarik eman ikastola eraiki zedin.

Iaz ere usurbildarren presentzia izan zen Urdiñarben herri afaria prestatzen, eta bertan

ateratako dirua Xiberuko Bozarentzat. Jendea gustora, harremana sendotu, euskalki desberdina entzun eta Euskal Herriko bazter berriak ezagutu.

Aurten berriz, 18 lagun abiatu ginen azaroaren 3an, bertan egingo zen afaria prestatu eta zerbitzatzeko. 110 lagun inguru bildu ginen Urdiñarberko kultur etxean. 200 biztanleko herri honetara inguruko herrixkako jendea hurbildu zen.

Jendeari Usurbil eta Urdiñarberko elkarkidetza zertan datzan esan ostean, afaltzen hasi ginen. Giro ezin hobean

igaro zen solasaldi, kantu eta dantza tartekatuz.

Bildutako dirua Bilxoko kultur elkartearen egoitza berritzeko izan zen, larunbatero auzolanean ari diren bolondresen gastuetarako hain zuzen.

13.500 biztanleko Zubero honetan, %65a jende heldua den honetan, laborantzaz bizi den honetan eta eta gazteen artean euskara %10ak dakien lur eremu honetan, ongi eskertua izan zen harainoko bisitaldia eta xiberutarrek ete-naldia gerta ez zedin eskatzen zuten, aberasgarria gertatzen baitira kultur harreman hauek.



# AGINAGA

Oskar Santamaria



## Arrate aldeko kontuekin

**H**erriko helduenak kontentatzeko moduko berriak dakartzat oraingoan, Arrate egoitzaren ingurukoak. Batetik, datorren hilaren 18an izango den omenaldi bero baten berri

eman behar dut. Igande horretan aurten 80 urte beteko dituzten aginagatarrak omenduko ditu Arrate egoitzak. Joxe Mari Errasti, Marcelino Bereziartua, Kandido Mayoz, Joakin Moreno

eta Manuela Atxegak, beraz, badute pozik egoteko arrazoirik. Lehen-dabizi bazkaria izango da Arra-

te egoitzan bertan eta ondoren bakoitzak sorpresatxoren bat ere izango omen du. Ezin aurreratu, ordea, bestela ez litzateke eta sorpresa izango.

Lerro hauek aprobetxatuz, omenduko dituzten guztiak zoriondu nahi nituzke eta ea egun berezi hori primeran pasatzen duten. Seguru baietz.

Bestalde, abenduaren baterako irteera antolatu du Arrate egoitzak. Jubilatutako guztiek Nafarroako Lizarra aldera joateko aukera paregabea izango dute, beraz, egun pasa ederrean. Oraindik apuntatu nahi dutenak garaiz daude, beraz, animatu!



# ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



## Etxe berriak

**O**rain dela egun batzuk, nere eskura iritsi zen "Usurbil" aldizakaria. Bertan, 7. orrian eta "Zubietan lehen aldiz eraikiko da" izenburuaren azpian, Zubietako etxe berrien eraikuntzaren proiektuaren berri ematen da. Ez da gaurkoa etxe famatu hoi kontua, urte askotakoa baizik. Urteak urte, udaleko arauak zirela lehenbizi, eta ondoren, lur jabeen desadostasunak zirela, bazirudien inoiz ez genuela posible izango zubietarrok gure herrian eraikitzea eta bizitzea.

Askotan galdetu izan naute ezagunek eta lagunek, ea zertan diren etxeak eta nik segituan hasiko direla erantzundakotan, aurpegi sinesgaitzak soma-

tzen ditut eta adarra jotzeko argumentoa bihurtzen da. Izan ere, aspalditik azaldu baitira egunkarrietan udalen asmoak eta abar, baina orain arte ez da ikusi inongo makinik edo lur mugimendurik hori egiaztatzeko

Hainbat buruhasute, atseka-be eta frustazio sortu dizkigu plan honek, baina lehan mailako beharra da zubietarrentzat, izan ere, belaunaldi askotako herritarrak kanpora joan beharrean izan baitira ezinezkoa baitzitzaien Zubietan eraikitzea.

Baina oraingoan bai! Tramite burokratikoak ia amaitu dira udalengan, eta momentu honetan, urbanizazio proiektua zein enpresak egingo duen erabakitzea falta da. Badirudi, zen-

bait eskeintza iritsi direla Donostiako Udalera enpresa batzuen aldetik.

Beraz, adjudikazioa eginda-koan (egun gutxi barru eginda da), dena prest egondo da obrak hasteko eta beraz, ustekaberik ezean, hurrengo hilebetean iritsiko dira Zubietara amestutako makinak.



# Udazkena, basoak perretxiko biltzailez betetzen diren urtaroa

**Urtero, eta batez ere udazkenean, perretxikozaleen bisita izaten dute gure mendi eta zelaiek. Batzuk denbora pasa, ibilaldia egin eta naturaz gozatze aldeira joaten dira, beste batzuk, ordea, perretxikoek sukaldaritzarako eskaintzen dituzten aukera bikainak aprobetxatu nahi izaten dituzte. Horrez gain, badira mikologiarako zaletasun hutsez asteburuetan goizean goiz jaiki eta ezagutu gabeko espezie bat topatzeko irrikitan egoten direnak ere.**

Esnegorri goxo, onddo bikain edo kuletoren batekin topo egiteko emozioak erakarrita jende ugari perretxiko bila joaten da Usurbilen udazkenean sartzearekin batera. Urriko beroaldiek perretxikoen agerrialdiak murriztu badituzte ere, "badaezpadako" mendi buelta egitera irtetzen dira asko. Urrutira joan gabe, Andatza eta Arratzain aldean "perretxikoen santutegiek" bisita bat baino gehiago izango zuten azken aste hauetan.

Izan ere, gauza asko ditu erakargarriak zaletasun honek: saski hutsaren aurrean izaten den zalantza, basoetako isiltasuna, urtero urtero nork bere

curriculum-era eta zartagineraren espezie berriak gehitu eta etengabe ikasten joatea, "aurkariak" ez ikusteko ematen diren sekretuz beteriko pausoak, ahaleginak eman duen fruituarekin prestaturiko afari ederraren bueltan etxe-koen eta lagunaren aurrean harro agertzeko aukera...

## Otorduan pentsatzen duten perretxiko zale ugari

Perretxiko bila joaten direnak, ordea, helburu desberdinak izaten dituzte. Gehienak mendi buelta egin eta otordu eder bat prestatu ahal izateko joaten dira perretxiko bila. Ez da hori Daniel Palacios usurbildarraren kasua. Izadi taldean eta Aranzadi elkartearen perretxikoak aztertzen ibili ostean "Centro Superior de Investigaciones Cientificas-en dabil lanean eta ondo ezagutzen du perretxikoen mundua. Bere esanetan "mikofago" ugari dago Usurbilen. "Perretxikoak jateko bakarrik biltzen dituzte eta bi espezie bakarrik ezagutzen dituzte: jatekoak eta botatzekoak. Garai batean perretxikoen inguruan kezka bat sortu zen eta Tripaki taldea sortu genuen, ondoren

*Izadi taldea bihurtu zena. Orduan perretxikoei buruzko azterketak egiten ziren Usurbilen, perretxiko eguna ere antolatzen zen, kezka bat bazegoen, baina orain ez da horrelakorik gertatzen. Gaur egun perretxiko bila joaten diren gehienek ondorengo otordua izaten dute buruan".*

Herriko lurretan perretxiko mota ugari daude, alde horretatik nahikoa aberatsa dela esan daiteke. "80. hamarkadan herrian egin ziren lau perretxiko erakusketetan 750 espezie inguru bildu ziren. Urte batean, adibidez, 528 espezie topatu ziren". Izan ere, habitat bakoi-tzak bere perretxiku espezieak izaten ditu. Onddoak, adibidez, hariztietan aurki daitezke, onddo zuriak, berriz, pinudietan, hariztietan, pagadietan egoten dira. Zoritzarrez Usurbilen pagadi eta harizti gutxi daude eta daudenak oso ondo begiratzen dituzte perretxiko zaleek. Ziortza langa inguruan dago bat, Arratzain aldean ere bai, baina leku hauetan perretxikoak aurkitzea ez da erraza. Kuletoak, onttoak, zizak azaltzen dira, baina gaur egun perretxiko zaleak gehiago dira perretxikoak baino.

## Urriko beroaldiaren ondoren perretxiko gutxi

Daniel Palaciosen esandakoren arabera azken hilabete honetan egin duen eguraldi onak ez die batere mesederik egin perretxiko zaleei. "Perretxikoak ateratzeko bero astinaldi haundiegia izan da, baina urriaren bukaeran Aralarren egon nintzen eta perretxiko ugari bildu nituen". Perretxikoetan egiteko garai egokiena udazkena dela esan ohi da, baina udaberrian, eta





neurri txikiagoan udan eta neguan ere izaten dira. "Onttoak, gibelurdinak, ziza horiak etab. biltzera joaten direnentzat perretxikoak biltzeko garairik onena udazkena dela argi dago, baina abuztuan ere perretxiko horiek egoten direla ezin da ahaztu. Gu, adibidez, marzulus izeneko perretxikoak biltzera joaten gara udaberrian. Perretxiko hau martxoan edo aurreko edo hurrengo hilabetean ateratzen da (horregatik marchulus izena)".

Perretxiko zaleen artean sekretuak egon badaude. Sas-

kia perretxikoz beteta dakarren bati non bildu dituen galdetuz gero, gutxitan ematen dute horren berri. Daniel ere iritzi berekoa da. "Guk nonbait perretxiko asko daudela ikusten baditugu, kalean ikusten ditugun perretxiko zaleei esaten diegu. Gero, ordea, beraiek guri ere abisatzen digute. Hala ere, badut bitxikeria bat. Duela urte dexente Aldazera joan ginenean sartu baino lehen usurbildar baten kotxea ikusi genuen. Xextoak onttoz beteta herrira itzultzean Bordatxora sartu eta han zegoen bera. Haiek ere onddo asko bildu zituzten, guk baino gehiago,

eta Aldazen bi mendialde daudenez zein aldetan egon ziren jakiteko non egon ziren galdetu nionean Zumarragara joan zirela esan zidan. Hara joateko kotxea Aldazen utzi eta Zumarragara oinez joan egin behar da... erantzun nien nik. Gertatutakoa inorri ez kon-

### Espezie ezezagunak ere garesti ordaintzen dira

tatzeko esan zidaten".

Jendea betiko perretxikoak biltzera joaten da, jangarriak diren espezie ezagunak biltzera, baina herriko txoko batzuetan oso preziatuak diren perretxiko ezezagunak badaudela esan digute. "Morchela izenekoak da horietako bat. Oria ibaiaren hertzean jaso daitezke udaberrian, errekaetako bazterrean egoten baita. Euskal Herrian ez da asko jaten eta kiloak 4.000-5000 pezeta inguru ordaindu behar izaten da, baina Katalunian, adibidez, kiloak 8.000-14.000 pezeta ordaintzera ere iristen dira". Trufaren ondoren garestien ordaindu behar izaten den espeziea da hau. Lurpeko onddo baten fruitua izaten

## "Gehienetan onddoak eskatzen dizkigute"

### Noiz eta nola hasi zineten perretxikoekin lanean?

Hasieran Hernaniko batentzat ekartzen nituen onddoak, taxista lana egiten nuen harentzat. Duela 10 urte inguru, ordea, gure konturara onddoak eta beste perretxiko espezieak saltzen hasi ginenean.

### Nondik ekartzen dituzue perretxikoak?

Galizia, Zamora, Portugal, Salamanca, Teruel... penintsulako txoko desberdinetan perretxikoak erosten ditugu, gero hemen garbitu eta saltzeko. Ekartzen dizkiguten perretxikoak banan bana sailkatu eta dudakoa denean bota egiten dugu. Eskaeraren arabera, hiru, lau, bost kiloko kaxetan jarri eta jatetxe

### Juan Joxe Arrospide



edo komertzio desberdinetara eramaten ditugu.

### Zer perretxiko mota saltzen dituzue?

Basoko perretxikoak erabiltzen ditugu, eta ez landaketetatik ateratakoak. Normalean hemen kontsu-

mitzen diren espezieak izaten dira. Gehienetan onddoak eskatzen dizkigute, baina udaberriko ziza, ziza horiak, kuletoak eta beste zenbait espezie ere saltzen ditugu.

### Nori saltzen dizkiezue?

Gehien bat jatetxeetatik eskatzen dizkigute. Batzuk urte gutxian nahi izaten dute, besteak, berriz, denboraldi batean bakarrik. Merendero gehienetan nahi izaten dituzte onttoak. Akelarre eta Zuberoa bezalako jatetxe famatuak, adibidez, espezie desberdinak nahi izaten dituzte. Berdura menestra kendu eta perretxiko menestra egiteko joera dute. Hala ere, denetara ere dexente eramaten ditugu.

## Kultura eta euskara teknikariaren hautaketarekin bueltaka

**K**ultura eta Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikariaren hautaketa hizpide da oraindik udaletxean. PNV-EAJ taldeak Epaimahakideen izendapenaren aurka aurkeztutako helegitea ez onartzea erabaki zen urriaren 30eko udalbatzan, baina aldi berean izendapen hori bertan behera utzi, izendapen berria egin eta lanpostu honetarako hautagaiek eginga zuten 2. azterketa errepikatzea erabaki da.

Kultura eta Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikaria hautatzeko Epaimahaikideak izendatzeko alkateak egindako dekretuan hutsune batzuk egiaztatu ondoren hartu dute erabaki hau. Epaimahaikide batzuen bigarren abizena ez zen azaltzen, eta bi kasutan ardezkoak izendatu gabe zeuden. Bestalde, epaimahaikideen titulazioa aztertu ondoren, hainbat aldaketa egin dituzte.

Guzti honek eragin zuzena izan du teknikariaren hauta-

ketaren prozesuan. Euskararen Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeke frogaren baliotasuna mantenduko da, baina gaitegi orokorrari dakokion froga (2. azterketa) errepikatu egingo da. Bertan, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

Bestalde, epaimahaikideen izendapena GAOn argitaratu ondoren EAJ-PNV taldeak aurkeztu zuen erabaki horren aurkako helegitea atzera bota zen urriaren 30eko udalbatzan. Horretarako, udal idazkariak egindako lege txostenean oinarritu ziren. Hiru arrazoi agertzen ziren bertan: kasu honetan erabilitako baliabidea bidezkoa ez izatea, inpugnatu-riko erabakia atzera botatzeko udalbatza plenoak eskuduntzarik ez izatea eta helegitea aurkeztu dutenei indarrean dagoen legediak honetarako legitimaziorik ez aitortzea.

Epaimahaiaren izendapena jendaurrean jarriko da GAOn eta udaletxeko iragarki taulan 10 eguneko epean.



*Kultura eta hizkuntz normalkuntzarako teknikariaren hautaketa atzeratu egin da. Euskararen Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta zutenek 2. azterketa egin beharko dute berriz.*

## Kale Nagusia

Kale Nagusiko urbanizazio proiektuari behin betiko onepena eman dio zion udalak joan den urriaren 30ean egin zen udalbatzan. Proiektua ERAIKI S.L. enpresak idatzi du eta 101.849.610 pezetako aurrekontua izango du. Aparkaleku libreak antolatu eta ibilgailuentzat zein oinezkoentzat ibilera erosoagoa izateko, ibilgailuentzat bi norabide dituen kalea bakarrekoa bihurtzea da proiektu honen helburu nagusia. Egitasmo hau, ordea, ez da bapatean gauzatuko. Legegintzaldi honetako gobernu programan sartuta badago ere, datozen bi urteetan Kale Nagusiko lanak hasia ia ezinezkoa izango da.

## Udalbiltza

Oiartzun, Zaldibia eta Astigarragako udalek Euskal herriko udalerrien arteko harremanak sendotu eta interes amankomunak elkar bultzatzeko "Udalbiltza Partzuergoa" eratu zuten joan den urriaren 16an. Usurbilgo udalak, berriz, entitate publiko eta nazional honekin bat egitea onartu zuen urriaren 30ean egindako udalbatzan. Partzuergo horren kontseilu Nagusiari bertan sartzeko eskakera egiteaz gain, udalaren 2001eko aurrekontu orokorraren %1 entitate honetara bideratzea eta Partzuergoko ordezkariak alkatearen esku uztea erabaki zen Batasunako ordezkarien onepenarekin eta EAJ-PNV eta EAko ordezkarien kontrako botuekin.

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

## Udala izango da Aginagako pelotalekua eta plaza eraikitze lanen sustatzailea

**A**ginagako Ariztitxo pelotalekua eta plaza berria eraikitze ino-lako eskaintzarik aurkeztu ez zenez, udala obra honen sustatzailea izatea erabaki zen pasa den urriaren 30eko udalbatzan. Horretarako obraren plangintza orokorra prestatu da, eta lan desberdinen esleipena prozedura negoziatuaren bidez egingo da.

Obrak burutu ahal izateko aukera desberdinak aztertu ondoren, udala eraikuntza lanen sustatzaile bihurtzea eta proiektuan jasotako lan desberdinen esleipena prozedura negoziatuaren bidez egitea erabaki ondoren, Jose M<sup>o</sup> Roteta arkitekto teknikoak obraren plangintza orokorra prestatu du dagoeneko, eta



bera izango da koordinatzaile orokorra.

Kontrartistek egiten duten lana udalak egin beharko du Aginagako Ariztitxo pelotalekua eta plaza eraikitze orduan. Eraikuntza lanen elementu guztiak multzotan sailkatu eta bakoitzaren aurrekontuak zehaztu ondoren, lan bakoitza egin behar den

orduan lan baldintzak, epak, aurrekontuak etab. gutxienez hiru enpresei aurkeztu eta eskaintza hoberena aukeratu du udalak. Honela, Gobernu Batzordean zuzenean adjudikatu ahal izango dira lan hauek.

Dagoeneko lur mugiketa, berdinketak eta eraisketak adjudikatu ahal izateko lau enpresei proposamenak aurkezteko deialdia egin zaie, eta saneamendu, drenaje, zimentatze eta egitura lanak egiteko ere bai.

Era honetan, Ariztitxo pelotalekua eta plaza eraikitze lanen kostua 161.388.932 pezetakoa izango da, lehen aurreikusita zegoena baino ia 30 milioi gutxiago.

## Artzabalgo zelaietan lur mugimenduak nagusi

**A**rtzabalgo zelaiak oroitzapenerako zelaiak bihurtu dira dagoeneko. Babes ofizialeko 48 etxebizitza eraikitze behin betiko onespina eman ondoren, kamioi eta makinaria astunek bertako paisaia erabat aldatu dute azken aste hauetan. Babes ofialeko etxebizitzak egiteko lanei ekin diete eta etxebizitza pribatuak egiten ere laster hasiko dira, urriaren 30eko udalbatzan eman baitzitzaien behin betiko onespina.

Bestalde, babes ofizileko etxebizitzak eskuratu ahal izateko 200 usurbildar baino gehiagok eman dute izena, eta bakoitzak aurkeztu duen dokumentazioa ondo aztertu ondoren abendua-ren bukaeran edo urtarrilean egingo da zozketa.



### TABERNA-JATETXEA



## ANTXETA

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

## WITZANGA

### HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

*Euskal presoak etxera!*



## Susmo taldeak bere lehen maketa grabatu du



**H**errian entsaiatzeko lekurik ez, eta Zarautz alde-rako bidea hartu dute herriko hiru gaztek. Ander Aizpurua (gitarra), Asier Fernandez (gitarra) eta Xabier Linazisoro (ahotsa) jaio berria den Susmo musika taldeko partaideak dira bi zarautzarrekin batera. Duela bi hilabete elkartu ziren lehen aldiz, eta dagoeneko sei abesti dituen beren lehen maketa grabatu dute.

**Susmo izena du zuen taldeak, nolatan izen hori?**

Taldeari izena jartzeko orduan esanahiren bat zuen hitz motz bat nahi genuen, eta pentsatzen ibili ondoren Susmo izena ondo zetorkigula erabaki genuen.

**Lehen ere elkarrekin jotzen al zenuten?**

Hasieran ni (Ander) beste talde batean nenbilen, taldekoak diren bi zarautzarrekin batera. Hala ere, hura ez zen ondo aterra eta gero Asier eta Xabierrekin batera Susmo taldea sortu genuen duela bi hilabete inguru.

**Eta dagoeneko maketa grabatu al duzue?**

Bai. Izan ere, Zarauzko udalak epe batean maketa grabatzen zuten taldeei grabaketa kostuen

herena ordaintzen zien, eta Euskadi Gazteako maketa lehiaketa gertu zegoenez Zarauzko Noizbehinka estudioan gure lehen maketa grabatzea erabaki genuen.

**Zer musika mota entzun ahal izango da maketa horretan?**

Denetik. Sei abesti grabatu ditugu, dauzkagun denak, eta kanta guztiak zeharo desberdinak dira. Trash metala, rock-a, batzuk abesti punkiak ere badaudela esan digute... Taldeko kideei musika desberdina gustatzen zaigu eta hori nabaritzen da abestiak egiterakoan.

**Orain arte kontzerturik eman al duzue?**

Oraindik ez, baina laster Akerria gaztetxean jotzeko asmoa dugu. Beste kanta pare bat sortu eta jendaurrean agertzeko prest egongo gara. Normalean astean bi aldiz entseiatzen dugu Zarauzko lokal batean eta gure artean giro ona dagoenez gustora gabiltza.

**Noizko egongo da salgai zuen maketa?**

Hemendik bi edo hiru astera. Grabaketa egin dugu, denak prestatzen bukatzen dugunean herriko taberna batzuetan jarriko ditugu salgai.

## Odol emaeleak

Aurtengo odol emanaldiak bukatu dira Usurbilen. Joan den azaroaren 5ean izan zen azkena eta bertan 55 herritarrek eman zuten odola (horietatik lauk lehen aldiz). 1974. urtean izan zen herriko lehen emanaldia eta orduan 25 herritar inguratu ziren. 26 urteren ondoren 7000 emaitza baino gehiago izan dira herrian. 2000. urtearen bukaera arte 6700 emaitza baino gehiago lortu ziren, eta aurtien 346 emaitza izan dira. Baidira, gainera, hasiera hartan odola eman eta oraindik ere jarraitzen dutenak. Hala ere, emaitzen zenbakiak potoloagoak izan zitezkeen, hainbat emaille plasma emateagatik odola eman gabe egon baitira denbora batean.

Bestalde, abenduaren 8an izango da herriko odol emallek urtero egiten duten bazkaria. Aurten Atxega jatetxean izango da eta izenak emateko telefono hauetara deitu daiteke:

943 365340 (Patxi Arruti)  
943 363102 (Agustina Aristi)  
943 362139 (Kattalin Arzalluz)  
943 360014 (Mila Arteaga)  
943 366040 (Maite Salaberri)

## Istripua

Eusko Trenbideak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ezer egin ez badute ere Usurbil aldera joateko Txikiardin autobusa hartzeko dagoen geltokiak arriskutsua izaten jarraitzen du. Urbil merkatal zentrura joaten diren ume eta gazteak geltoki horretara joaten dira askotan eta horretarako errepidea zeharkatu behar izaten dute. Pasa den urriaren 5ean, adibidez, autobusa zetorrelako errepidea gurutzatzerakoan kotxe batek jo eta M.U.I 13 urteko usurbildarra zauritu zen.

## Herri bat, estatu bat, egoera bat, biolentzia, irudia, erritmoa...ametsak eta nahiak

**P**alestinar herriaren sufrimendua olerki, irudi, musika eta antzezpenen bidez gerturatu ziguten "Suzko hitzak" ikuskizunarekin Thamer Birawi eta Jabier Barandiaranek pasa den urriaren 31n. Palestinar erresistentziaren olerkiak izan ziren ikuskizunaren oinarri nagusia. Euskara eta arabierazko olerkiak tartekatuz, bideo eta diapositiba irudiak txandakatuz, giro atsegin eta hunkigarria sortu zuten Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Hona hemen poeta palestinar baten olerki bat:

"Beste oraina banu  
nire iraganaren giltzak nituzke  
eta nire iraganaren jabe  
nire geroa osorik izango nuke"



**A**lkartasuna Nekazal Kooperatibaren sindikatuak egoitza berria izango du hemendik aurrera. Joan den azaroaren 4an izan zen inaugurazio ekitaldia. Hasteko aizkolariak, harrijasotzaileak eta sokatira saioa ikusi ahal izan zen herriko frontoian eta ondoren, eraikuntza berria nolakoa den ikusteko aukera izan zuten bertara gerturatu ziren guztiek. Hala ere, lekualdatzea gauzatu eta sindikatu berriaren ateak irekitzeko astebete edo bi aste beharko dituzte.



**U**surbilgo eta inguruko herrietako artisauek beraien lanak jendaurrean agertzeko aukera izan zuten joan den azaroaren 1ean Aitzaga Kultur Elkarteak antolatutako VII. Eskulangintza Azoka eta Erakusketan. Egur tailak, apaingarriak, bastoiak, txotxongiloak, ukendak... mota askotako artisautza produktuak ikusi eta erosi ahal izan ziren herriko frontoian. Eguraldi onak lagunduta jende ugari ibili zen bertan goizean zehar.



# Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia  
hemen aurkituko duzu

*Udazkeneko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

## “Bertso eskola iraunarazi eta indartuko duten bertsozale gazteen zain gaude”



### ■ 1990-91n sortua

■ 1987an laukote bat hasi zen Paotxa irratian bertsozaleatasuna bultzatzen, baina bertso eskola lau urte beranduago sortu zen.

■ Gaur egun 10 bertsozale inguru biltzen dira. Hauetatik bi usurbildarrak dira, eta gainontzekoak Orio eta Donostia aldekoak.

■ Asteazkenero biltzen dira Udarregi zaharrean gaueko 20.30etan eta nahi duenarentzat atek irekita daude.

Usurbil bertso herria dela esan ohi da, baina gaur egun herriko bertsogintza ez dago bere momenturik onenean. Horren adierazle nabarmena da Bota Punttuba bertso eskolak izan duen behe-rakada. Azken 11 urtetan herriko bertsozale dexente gerturatu izan da bertara, baina aurtengo ikasturtean 10 lagun biltzen badira ere, horietatik bi bakarrik dira usurbildarrak.

Kerman Errekondoren esanetan irautea da momentu honetan bertso eskolaren helburu nagusia. *“Gauza guztiak igo eta jaitsi egiten dira eta gu momentu honetan behea jota gaude. Hala ere, etorkizunean hau eutsi eta indartzeko ikastolatik bertsozaleatasuna duten hiruzpalau gazte etorriko direnaren itxaropenik ez dugu galdu”*. Horrez gain Nikolas Izetak hutsune handia utzi omen zuen. *“Urte askotan bera izan zen bertso eskolaren bultzatzaile haundiena”*.

Azken bospasei urtetan Orio eta Donostia aldeko jende gehiago dabil bertso eskolan herrikoak baino. Bota Punttubaren hastapenetan herriak eran-tzun ona eman zuela uste du Iñaki Agirresarobek, *“baina azken urteen hutsune bat egon da. Duela lau urte inguru herriko lau bertsozale hasi ziren, baina orain bakarrik jarraitzen du”*.

Usurbilen bertsozaleatasun handia dagoela esaten bada ere, Iñakik zalantzan jartzen du hori. *“Bere garaian bertsogintzak arrakasta handia zuen herrian, baina gaur egun jaietako bertso saioetan bakarrik biltzen da jendea. Urtean zehar antolatu izan ditugun ekitaldietan (Santa Ageda bezperako eskea, bertso afariak, Amurizaren emanaldiak...) jende gutxi biltzen da. Herrian izan ziren Gipuzkoako eskola arteko txapelketaren finalean, Euskal Herriko txapelketako kanporaketan... kanpoko jende gehiago egon izan da herrikoak baino”*.

Santixabel Bertsopaper Lehiaketako partaidetzak izan duen beherakada da “krisi” honen lekuko. *“Garai batean 10-11 lan aurkezten ziren, azken urteetan, berriz, laupabost bertsopaper bakarrik izaten dira. Bertso eskolan jende gutxi ibiltzeaz gain, bertsoak egitera ere herritar gutxi animatzen da”*.

Ea ba egoitza berrira pasatzearekin batera gauzak aldatzen hasten diren, laster batean Txaramunton udalak utzi dien lokalera joateko asmoa baitute.



Zure publizitatea  
hemen jarri nahi  
baduzu, deitu  
943 36 03 21  
telefonora!



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

**BORDATXO  
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



# Izetaren idiek marka berria jarri zuten azaroaren 1eko idi proban

**A** iako Urdaneta auzoko izetaren idiek erraz hautsi zuten iaz Illarretaren lau idiek uztarri batean lotuta egindakoa. 31 plaza, 3 zinta eta 0,52 metro egin zituzten 50 minutuko tartean harri haundiari firaka.

Saio hau iaz egin zen lehen aldiz, eta Illarretaren idiek 13 plaza, zinta bat eta 2, 26 metro egin zituzten. Azaroaren 1ean izan zen idi proban, ordea, izetaren idiek erraz gainditu zuten marka hori. 450 ikusle inguru bildu ziren proba hau zuzenean jarraitzeko, lau

idi uztarri batean lotuta ikusteko modua ez baita askotan izaten. Dema-plazan zegoen artekariak iazko marka hobetu baietz, eta 20 plaza edo 23 egin baietz oihukatzen zuen, baina azkenean nahikoa urrun gelditu zen, 31 pasa egin baitzituzten.

Iazko proban Illarretaren idiak etengabe

gelditzen zirela ikusi genuen. Aurten, ordea, izetaren idiek plaza hasi eta bukatu egiten zuten gelditu gabe. Hauek bazekiten zertara zetozen.



## Senior mailako nesken taldea berriz ere lehian

**A** zken denboraldiekin aldearatzuz inoiz baino eskubaloi talde gutxiago ditu Usurbil Kirol Elkartek. Hala ere, bada berrikuntza bat, herriko nesken senior mailan jokatzeko talde bat osatu baitute. 94-95 denboraldian Bigarren Nazionaleko Euskadiko txapeldun izan eta mailaz igotzea lortu ondoren taldea desagertu egin zen. **Ora in, berriz, jende gaztearekin ilusioz heldu diote denboraldiari.**

Iaz herritik kanpoko bi taldeetan jokatzeko zuten bi jokalarik eman zuten lehen pausoa. Senior mailan nesken talde bat osatu zezaketela pentsatu zuten eta jendea animatzen hasi ziren. Batzuk eskubaloia utzia zuten, beste batzuk kanpoko taldeetan ari ziren jokatzeko eta jubenilak, berriz, taldea ezin osatuan zebiltzan. Azkenean, ordea, taldea osatzea lortu dute.

Oraingo 14 jokalarik daude taldean. 16 urte dituzte gazteenak, eta 21 urte inguru zaharrenak. Herrikoekin taldea osatu ezinezan zebiltzala ikusita, lehen Usur-

bil K. E.n jokatu zuten bi donostiar ere etorri dira. 2ºB mailan jokatu dute eta denboraldia ahalik eta giro hoberean aurrera eramatea da beraien asmoa. Izan ere, helburuak finkatzea zaila da, atzetik nesken eskubaloi talderik ez baitator.

Leire Unanue jokalarietako batek esandakoaren arabera hasieran Usurbil Kirol Elkarteko zuzendaritzak oztupoak jarri bazizkieten ere duela hilabete inguru hasi ziren entrenatzen. *"Orduan ilusio haundia genuen, baina denbora aurrera joan ahala jendea entrenamendutara huts egiten hasia da. Taldean 14 bagara ere, jokalarik gehiagoren beharra dugu. Lana dela eta ez dela, batzuk ezingo dute partidetara joan eta 12 jokalariko zerrenda aurkezten ez bada isuna ordaindu behar izaten da".* Pasa den urriaren 27an ekin zioten txapelketari, baina ezin izan zuten garaipena eskuratu. Basauriren aurka 13-17 galdu zuten Oiarde kirolegian.

## Emaizak

### Futbola

Urriak 27-28  
 Usurbil F.T **0** - Antoniano **1** (Nesk.)  
 La Salle **3** - Usurbil F.T **4** (2. jub.)  
 Udarregi **5** - San Benito **1** (Infan.)  
Azaroak 3-4  
 Amara Berri **0** - Usurbil F.T **1** (Nes.)  
 Usurbil F.T **1** - Sab Ignacio **1** (2. j.)  
 La Salle **4** - Udarregi **2** (Infantilak)

### Eskubaloia

Urriak 27-28  
 Ereintza **28** - Usurbil K.E. **17** (2.N.)  
 Arrate txiki **26** - Usurbil K.E. **17** (jub.)  
 Usurbil K.E. **13** - Basauri **17** (Nesk.)  
Azaroak 3-4  
 Usurbil K.E. **18** - Aloña Mendi **19** (2.N.)

### Areto futbola

Urriak 27-28  
 Tecnun B **2** - Txotx **5**  
 Antxeta **6** - Mikelson **2**  
 Idiazabal **9** - Peio Arrain. **3**  
Azaroak 3-4  
 Txotx **4** - Arditturri **1**  
 Peio Arrain. **3** - Ainese Aseg. **4**  
 Larramendi C **15** - Antxeta **2**

### Hondartzako futbola

Azaroak 3-4  
 Gaztedi **2** - Aginaga Sag. **3**

## Marian Soroa: “Pobrezia haundia badago ere pozik bizi dira”

**M**arian Soroa Indiara joan zen uztailean Eusko Jaurlaritzak urtero Eusko Gazte Lankidetzaren barnean ateratzen dituen beka baten bidez. Hiru hilabete igaro ondoren urriaren hasieran itzuli zen herrira eta guk, han zer egin duen eta hango bizimodua nolakoa den jakin nahi izan dugu. Hiru urteko lehortearen ondoren aurten eurria egin badu ere, gurearekin zerikusirik ez duen bizitza berri bat ikusi duela aitortu digu.

**India haundia da, baina zu ze eskualdetan egon zara?**

Gujarat-en egon naiz, Indiako ipar-ekialdean. Bost joan ginen eskualde horretara, baina bakoitza proiektu desberdin batean egon gara. Ni, 25000 biztanle zituen Dhanduka izeneko herrixkan zegoen Karmelita eta Jesuiten kongregazio batek duen umeen barnetegian egon naiz. Eskola aldameanean dute eta udaran ezezik, urte osoan zehar han egoten dira. 4-16 urte bitarteko 121 neska eta 250 mutil zeuden barnetegian. Ghandinagar hiriburutik 100 kilometrotara zegoen herrixka hau.

**Zer lan egin duzu hiru hilabete horietan zehar?**

Goizean neskei orrazten, eskuak garbitzen laguntzen nien eta gabonetako programa bat prestatzen ari zirenez dantza pauso berriak asmatzen etab. ere ibili gara. Hauek klasera joaten zirenean monjei eta jesuitei informatika klaseak ematea zen nire lana. Arratsaldetan, berriz, han inguruan zeuden mila biztanle baino gutxiagoko herrixketara joaten ginen.

**Zer egiten zenuten herrixka horietan?**

Bost urte baino gutxiago zituzten haurrei eta haurduen zeu-



den emakumeei diru sinboliko baten truke janaria eta oliba ematen genizkien. Bide batez haur eta emakume horiek pisatu eta jarraipen bat egiten zitzairen. Izan ere, 5 urteko haurrek 3 kilo dituzte, eta haurduen zeuden emakumeek, berriz, 35 kilo. Horrez gain, emakumeei umeak nola zaindu, jaten nola eman, jaten ematea garrantzitsua dela etab. erakusten genizkien. Haurra gaizki dagoela ikusten badute, beren jainkoak horrela egoitea nahi izan duela eta ez dute ezer egiten, ez dituzte garbitzen, beraiekin ez dira jolasten...

**Sendategi mugikor bat ere bazenuten ezta?**

Bai eta honekin ere herriz herri ibiltzen ginen ebakiak, anemiak... gaixotasun orokorak sendatzen. Izan ere, hango ospitale publikora ezin da joan. Izarak ez dituzte garbitzen, lurra ez dute fregatzen, bisturiak garbitu gabe egotendira, gauetan aborto klandestinoak egiten dituzte kobratuz... hara sartzeak beldurra ematen du. 45 langilek egiten dute lana eta poliziaek derrigorrez eramandako gaixo bat bakarrik zegoen han.

**Zer moduz moldatu zara beraiekin hitz egiteko orduan?**

Haseran hizkuntzarekin nahikoa galduta ibili nintzen. Nekazal herri batekoak izanda bertako hizkuntza erabiltzen dute, nik oinarrizko hitzak ikasi, beraiek ingeleraz beste batzuk, eta gainontzekoa mimika bidez egiten genuen. Hala ere, barnetegiko norbaitekin ibiltzen nintzen nahikoa ondo moldatu naiz.

**Hango umeek zerbait ikasten al dute eskolan?**

Ezer askorik ez. Eskola pribatuetan irakasleek zerbait erakusten dute, baina gobernua-renak diren eskola publikoetan irakasleak telebista jarrita uzten du edo umeak patiora bidaltzen ditu. Azken finean ez diete ezer irakasten. Hori bai, eskola orduz kanpo ordainduz gero klase partikularrak ematen dituzte. Haur asko eskolara joaten dira baina ez dakite irakurtzen eta idazten. Ni egon naizen eskualdean gizonezkoen %75 baino gehiago alfabetatu gabeak eta emakumezkoak %90 baino gehiago.

**Mutilek ikasteko aukera ba omen dute, baina neskek ez.**

Barnetegian mutil gehiago zeuden neskak baino. Mutilengatik ordaindu egiten zuten eta neskengatik ez. Izan ere,

suposatzen da etorkizunean mutilek ikasten jarraituko dutela, lana izango dutela eta emakumeak etxean geldituko direla. Ikasten jarraitzeko aukerarik ez die ematen, eta nekazal lanak egin behar izaten dituzte. Izan ere, ikasten badute senarrari aurre egin diezaieke eta emakumeak ikasten jarraitzea ez dago ondo ikusia.

### **Emakumearen egoera e zen nolana hikoia orduan.**

Emakumearen egoera ez da batere ona. Senar-emazteak kalean oinez badoaz emazteak bi pauso atzerago joan behar du, janaria emakumeak prestatzen badu ere senarra hasten da jaten, gero semeak eta ondoren emaztea eta alabak. Ezkontzak ere ez dira maintasunezkoak, gurasoek erabakitzen dute zein zeinekin ezkondu. Bi urte baino lehen seme-alabarik ez badute izaten senarrak beste emakume bat ekartzen du, eta semerik ez badu ekartzen ere bai. Izan ere, familiaren jarraipena segurtatzeko, ezkondu ondoren semeak etxean gelditzen baitira, senarrek mutilak nahi dituzte, semeak. Neskak jaiotzen direnean, askotan hil egiten dituzte, edo bestela baztertu egiten dituzte: jaten ez die ematen, heziketarik ez dute jasotzen, ez diete kasurik egiten...

### **Zer lan egiten dute bizitza aurrera ateratzeko?**

Ni egon naizen eskualdean gehienak nekazariak dira, baina lurak ez dira beraienak, beste batzuentzat egiten dute lana. Lurra lantzearen truke uztaren ehuneko bat ematea adosten dute elkarrekin, baina irakurtzen ez dakitenez adostutako ehunekoa baino gutxiago jartzen die paperean eta beraiak sinatu egiten dute. Uztaren zatia etxera ekartzen dietenean konturatzen dira iruzurra egin diela. Azken finean nahi duten guztia egiten diete. Hala ere, gazte batzuk irakasle, abokatu edo sendagile izatera

iristen ari dira, pixkanaka-pixkanaka egoera aldatzen ari dela esan daiteke, baina nahikoa zaila ikusten dut nik.

### **Eta hango gobernuak zer egiten du honen aurrean?**

Indiako gobernuari kasta baxueneko jendeak ikastea ez zaio interesatzen. Beraien sistema mantendu nahi dute. Kasta bakoitzari lan batzuk dagozkio eta kaste sistema desagertua dagoela esaten badute ere oraindik horrela funtzionatzen dutela egiaztatu dut nik. Beraien kastari ez dagokion lan bat izatea ezinezkoa da han. Norbait beste kasta bati dagozkion lanean hasiaz gero jendeak ez du onartzen, mespretxua egiten diote.

### **Pobrezia haundia al zegoen zu egon zaren eskualdean?**

Jendeak ez dauka gauza haundirik. Familia batek 14 rupia aurrezten ditu, 50 pezeta inguru, eta banana sorta batek 10 rupia balio ditu. Atera kontuak. Pobrezia haundia dago, baina nahikoa pozik bizi dira. Dirurik ez daukate, baina bizilagunen artean konpontzen dira nola edo hala. Guretzat etxea, kotxea, lana etab. izatea da garrantzitsuena, baina beraiantzat familia eta lagunak. Behi bat izatea, adibidez, sekulako aberastasuna da beraiantzat. Lurra lantzeko tresna bat da, arroznea egiteko

erabiltzen dute esnea, lehortea dagoenean esnetik ateratzen dute ura... Ez daukate ezer, pobrezia da nagusi baina oso pozik bizi direla iruditu zitzaidan niri. Hiru urteko lehortea, janaririk ez, ez dakite idazten eta irakurtzen... lurrikara izan dela? Ez zaio axola, hainbeste zorritxar dituzte!

### **Hala ere pozik bizi direla esaten ari zara?**

Nirekin zeudenean, behintzat, pozik ikusten nituen. Dantza egitea eta hitz egitea gustatzen zaie. Orduak eta orduak pasatzen dituzte hitz egiten. Gurearekin alderatuta bizitza lasaiagoa da hangoa. Herrietara joatean herri guztia aurrean eseri eta beraiantzat dantza egiteko eskatzen zidaten. "Disco-dance" dantzatzen erakusteko esaten zidaten. Musika eta dantzak asko gustatzen zaizkie. Hala ere, denbora gehien lanean pasatzen dute, emakumeek bai behintzat. Oso irekiak dira, oso jatorrak. Hortan beraiengandik zer ikasia badugu. Bakoitzak bere etxera gonbidatzen zaitu afaltzera, ura eskaintzen dizute, tea... Txuri bat ikusten dutenean dena oparitzen dizute.

### **Itzuliko al zinateke berriz Indiara?**

Niregatik balitz bai. Errepikatze moduko esperientzia izan da eta itzultzeko gogoia dut.



# Er diyo?



**Imanol Zarautz,  
Troya**



- Bertsozalea
- Arotza
- 22 urte

## Badatorrela

**A**biatu da lau urtetik behin martxan jartzen den tren. Euskal Herriko zenbait herri igaro ondoren (Legazpi, Amurrio, Donibane-Garazi, Lesaka, Elorrio eta abar) Anoetako belodromoraino heltzeko asmoz.

Baina, aurtengo edizioa ezberdina izango da. Izan ere, milurte berriko lehen txapelketa izango baita.

Hortaz aparte, ordea, tren horretako bagoietako eserlekuak urte luzeetan zehar bereganatuak zituzten zenbait bidaiarik, eurak baino gazteagoei tokia utzi behar izan diote; tartean Anjel Mari Peñagarikano eta Xebastian Lizaso bertsolariak.

Argi dago milurte berria bertsolari gazteena dela. Eta horren lekuko dugu aurtengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa.

Hasi da bertso-eskoletan erein den haziaren iraultza. Hor daude adibide bezala Amets Arzallus, Sus-trai Kolina, Unai Agirre eta Ainhoa Agirreazaldegi, besteak beste.

Hala ere, bada, belaunaldi berri honi aurre egingo dion beste bertsolari talde bat ere. Oraindik gazteak diren arren, badaramatzate zenbait urte Euskal Herriko plazetan probintzi mailako txapelketetan zein txapelketa nagusian parte hartuz. Talde horretan koka ditzazkegu Irazu, Maialen Lujanbio, Maia, Elortza, Iturriaga eta abar. Beraz, esan dezakegu, zorte pixka batekin, aurtengo txapelketa nagusian hiru belaunaldi izango direla txapel beltza eskuratu nahian.

Gainera, XIII. txapelketa honek badu beste xarma bat ere. Izan ere, oso gutxitan bezala iparretik, hegotik, mendebaldetik eta ekialdetik etorritako bertsolariak arituko dira nor baino nor.

Usurbilen ere badira herriko bertso-eskolaren bidez argitara azaldu diren bi kimu berri: Egoitz Izagirre oriotarra eta Beñat Gaztelumendi añorgarra. Biak Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan txapeldunak izan dira aurtengo edizioan. Egoitz handien mailan izan da garaile eta Beñat, berriz, gazteen mailan.

Urte hauetan guztietan zehar, bertso-eskolek ixilean eta humil-humil egindako lanaren lehen fruituak Euskal Herriko Txapelketa honetan ikusi ahal izango ditugu. Presta daitezela, beraz, Egaña. Mendizabal, Murua eta gainontzekoak. Kalea gazteena den bezala laister Euskal Herriko bertso-oholtzak ere eurenak izango baitira, baita bertso-trenaren gidaritza ere.

***Txapelketaren epela  
ez zaigu iritsi bela  
aitortu behar bertsozalea  
bertso gosez dela  
gazteak badatozela  
zarrak presta daitezela  
merezi dunak jantzi dezala  
aurtengo txapela.***

**Gora bertsolari gazteen iraultza!**

**Gora euskal bertso-eskolak!**

***Xinkildegia***

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

**TXURRUT**



**TABERNA**

***Giro eta musika atsegina!***

**San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80**

Kale Nagusia, USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 15

**LABE-GOXO**

## Lehiaketa



## Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean  
Bordatxo tabernan bi  
pertonentzat afaria  
zozketatuko dugu

### 122. aleko erantzuna



1967. urteko uztailaren  
9an egin zen Usurbilgo  
euskal sukaldaritzako  
eskualdeko lehiaketaren  
lehen sariaren irabazlea  
Santi Zumeta izan zen.

#### Irabazlea

Francisco Alkorta Zabala

#### Saria

Antxeta tabernan bi  
pertonentzat afaria

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08



## TXIRIBOGA TABERNA


pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

SERIGRAFIA  
TAnPOGRAFIA  
**IOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa  
37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

  
ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Arizeta Kalea, 1  
Tif 36 21 64  
USURBIL



## Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

**P A T R I**  
J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak  
Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

## AZAROAK 12 astelehena

- **Tertuliya, Batasuna Usurbilen.** Zubietako Alamandegin 20.00etan.

### Azaroak 15, osteguna

- **Tertuliya, Batasuna Usurbilen.** Aitzaga elkarte 20.00etan.

### Azaroak 17, larunbata

- Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta ikasle eguna 2001 Usurbilen. Gauean kontzertua: **La Polla, Su Ta Gar, Berri Txarrak, Flitter eta RIP.**

### Azaroak 19, astelehena

- **Tertuliya, Batasuna Usurbilen.** Kalezarko eskoletan 20.00etan.

### Azaroak 22, osteguna

- **Tertuliya, Batasuna Usurbilen.** Txokoalden Akerra gaztetxean eta Aginagan Arrate tabernan 20.00etan.
- Kultur hilabeteko egitarauaren barruan **Zumarte musika eskolako kontzertua** Udarregi Ikastolan arratsaldeko 19.30etan.
- Kultur hilabeteko egitarauaren barruan **diapositiba emanaldia, "Mendi trabesia asto batekin"**. Aitor Landaluze eta Jexux Agirresaroberen eskutik.

## OHARRAK

- ✎ Mundurran garaje bateko marra salgai . Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu ditut anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaltxera eraman ditzala.
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez. Telefonoa: 943. 36.14.49. Ordutegia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.

✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .

✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.

✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.

✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.

✎ Neska bat eskaintzen da gauetan umeak zaintzeko. Telf. 943 371447 (Belen)

✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952

✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.

✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.

✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko persona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).

✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.

✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

✎ Herriko taberna batean lan egiteko neska edo mutil euskaldun bat behar da. Telf. 943 371042.

✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469



## ZIORTZA GAZTE ELKARTEA

Gure ikasturte hasiera dagoeneko gainean dugunean, zenbait gazte-txo Ziortza Gazte Elkartea bere urteroko ekintzak martxan ez dituela jarri ohartuko ziren honez gero. Aurten, 2001-2002 ikasturte honetan, baditugu ekintzak gelditu eta errefrefio bat egiteko zenbait arrazoi.

Horregatik, urteroko ekintzen hasiera atzeratu egin dugula jakinarazi nahi diegu herritarrei. Behar den momentuan beraien berri emango zai-zue.

Hala ere, Santo Tomas festa, kabalgata eta Sendotzako taldea martxan daude dagoeneko.

## ZUBELDIA ANAIEKIN HERRI BAZKARIA

Eguna: **AZAROAK 10**

Lekua: **Aginaga Sagardotegia**

Ordua: **14.30etan**

Menua: **Sagardotegiko menua**

Prezioa: **3.500 pezeta**

Txartelak salgai: **Bordaxo, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan**

**Oharra: Denok Peña Zubeldiako kamisetekin**

## Merkataritza euskalduntzeko lehen konpromisoak hitzartu dira

**H**erriko merkataritza euskalduntzeko esku-haritzearen 2. faseak aurrera jarraitzen du. Kanpaina bere fase garrantzitsuenean sartu da; hau da, udalaren eta herriko establezimenduen artean landuko diren hitzarmenak egiten hasi gara. Hauen bidez denda, taberna eta jatetxe bakoitzak bere establezimenduan euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa hartuko du eta udalak beharrezko bitartekoak eskainiko ditu.

Kaleberritik hasi bagara ere, laster gainontzeko auzoetara joango gara. Bederatzi saltokitan egon gara, eta zortzik beren jardura euskaraz burutzeko konpromiso ezberdinak hartu dituzte.

Saltokian dituzten idazkiak (errotulo, ordutegi, zigilu, idazki propioak, menuak...) euskaraz jartzeko konpromisoa hartu dutenak honako hauek dira: **Estrella Aseguruak, Aizpurua Okindegia, Baratza Fruitu-**

**Barazkiak, Usurbil Optika eta Mapfre Aseguruak.**

Bestetik, euskararen ezagutza hobetzeko konpromisoa hartu eta aurrerago antolatuko diren euskara ikastaroetan izen emateko animatu direnak, berriz, honakoak dira: **Baratza Fruitu-Barazkiak, Lurdes Fruitu-Barazkiak eta Aizpurua Okindegia.**

Azkenik, hirugarren multzo batean sailkatu ditugunen artean, euskarazko harreman idatzien sarea sendotu nahi dutenak daude. Hau da, udalaxe, finantza erakunde eta abarretan idazkiak euskara hutsez jasotzeko prestutasuna agertu dutenak hauek dira: **Mikel Arraindegia, Pello Arraindegia, Aizpurua Okindegia, Mapfre Aseguruak eta Usurbil Optika.**

Laster gerturatuko gara zure establezimendura. Hala ere, badakizue non aurkituko gaituzuen: Noaua!ko egoitzan.

## Baserritarrei deialdia

**A**zken alean aipatu genuen bezala, abenduaren 16ean Santo Tomas Azoka izango dugu. Aurten goak badu alderik iazkoarekin. Izan ere, baserriko produktuekin azoka egiteaz gainera, herrian ekoizten den babarrun lehiaketa eta baserrietan egiten den sagardo lehiaketa antolatu nahi baita.

Babarrun freskoak epaituko dituzte herriko jatetxeetako sukaldariek. Horrez gain, baserrietan egiten den sagardoa ere dastagai jarri nahi da eta herritarrek ere, adituez gain, sagardo onenak epaitzeko aukera izango dute. Bi lehiaketetan sariak egongo dira lehen hiru postutan gertzen direnentzat. Bestalde ere, postua jarriko duten guztiei dieta ordainduko zaie.

Hori dela eta, sagardoazale, babarrun ekoizle eta baserritarrak animatu nahiko genituzke euren produktuak azokan jartzeko. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu Noaua!ko telefonora. Hala ere, laster jarriko gara zuekin harremanetan.

## Ireki atea Noaua! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide!

*Aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, Aitziber laster gerturatuko da zurer!*

**BAZKIDE TXARTEA**

5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

**Noaua!!**  
HAMAROSKARIA

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_



**Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dute Noaua! Kultur Elkartea**

# USURBILGO OFIZIOAK ZURE

## ESKURA DITZU

Igeltseritza

URDANTZI

ERRAZKIN  
IGELTSERITZA

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadun konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZATZIS

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Pinturak

RAMON  
BARCENILLA

- Pikor pintura eta goitele lanak
- Papereztatze-lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 609 46 09 66

Pinturas  
lon

943 83 09 37- 670 39 75 04

Iurgintza

IÑAKI  
LATAILLADE

Iturgintza gas eta bero-  
gintza

INSTALAKUN -

Mobila: 609 888021

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

JOSEBA

ARANGU

☎ 943 83 00 72

Elektrizitatea

MIKEL IZAGI

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko  
aluminioogurrez-  
ko

Agir Telf: 43 37 5 71

JOSE RAMON  
IBARGOEN

Neuriko altzariak eta sukaldeak

Errotaberrri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

JOSE MARI  
KURTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

Eskejola

JOSE ANTO-  
NIO

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

EUGENIO  
NORIEGA

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

Gida honetan azaldu  
nahi baduzu, deitu!  
943 36 03 21  
telefonora